

munduak guztiontzat behar ko luke

GZAKIEN LURRA


Nogaye eta Uxue goxokiak jaten ari dira barre batean. Ane Pirat jakin-minez hurbildu zaie.



ZER DAUKATE GOXOKI HORIEK HORRELAKO ALGARAK ERAGITEKO?

NIRE BIZITZAN JATEN DITUDAN LEHENAK DIRELAKO.

NOGAYEK 10 URTE DITU ETA SENEGALDARRA DA.



BAI, BAINA NIK DUELA GUTXI ARTE EZIN NUEN AHOA ZABALDU. EZIN NINTZEN ONDO ELIKATU ETA, JAKINA, EZIN NITUEN GOXOKIAK JAN.

DUELA SEI HILABETE ETORRI ZEN EUSKAL HERRIRA, EBAKUNTZA BEREZI BAT EGIN BEHAR ZIOTELAKO, ETA SENDATU BITARTEAN GURE ETXEAN DAGO.

SENEGALAN EZ AL DAUKAZUE GOXOKIRIK?

OSO POZIK BIZI NAIZ IZEB
AWAREKIN SENEGALEN. BAINA
TXIKITATIK OSASUN ARAZO LARRI BAT
IZAN DUT, EZIN NUEN AHOA ZABALDU ETA,
ONDORIOZ, EZIN NINTZEN
ONDO ELIKATU.



IZEBAK MEDIKUARENGANA
ERAMAN NINDUEN ETA HARK ESAN ZION
EBAKUNTZA OSO BEREZI BAT BEHAR NUELA
ETA ONENA GIZAKIEN LURRA FUNDAZIOAREKIN
HARREMANETAN JARTZEA ZELA, HAI EK
LAGUNDUKO ZIDATELA.




HAIEN LAGUNTZAREKIN
ETORRI NAIZ EUSKAL HERRIRA,
HEMEN EBAKUNTZA HORI EGITEN DUTEN
OSO MEDIKU ONAK DAUDELAKO.



BESOAK ZABALIK HARTU
NAUTE HEMEN. AIREPORTUAN JASO
NINDUTEN, FAMILIA JATOR BATEKIN NAGO,
MEDIKUAREN ERA LAGUNDU DIDATE,
ERIETXEAN EGON NAIZENEAN NIRE
ONDOAN EGON DIRA.






ZEINEN AUSARTA ZAREN,
NOGAYE! ZEURE ETXETIK HAIN URRUN,
ZEURE ETXEKORIK GABE, HAIN
EBAKUNTZA ZAILA...

EGIA DA ETXETIK
URRUN NAGOELA, BAINA
ETXEAN BEZALA
SENTIARAZI NAUTE

ETA GUREZAT
ETXEKO DA
NOGAYE.



NIK NOIZBAIT URRUTI
JOAN BEHARKO BANU EBAKUNTZA
BAT EGITERA, GUSTATUKO LITZAIDAKE
NORBAIT DENBORA GUZTIAN NIRE
ONDOAN EGOTEA...

BAI, EGIA DA.
OSO LAN POLITA EGITEN
ARI ZARETE, UXUE.

BAI, GU NOGAYERI LAGUNTZEAGATIK
ARI GARA, BAINA ASKOZ GEHIAGO LAGUNDU DIGU
BERAK. BERE MUSIKA, BERE JATEKOAK, BERE HERRIALDEA...
EZ AGUTZEKO AIKERA IZAN DUGU; ABENTURA
EDERRA DA NOGAYE ETXEAN EDUKITZEA.

ZEINEN ONDO!
AIZU, EGIA ESAN, OSO
IRRIBARRE POLITA UTZI
DIZUTE MEDIKUEK,
NOGAYE!

HORI EZ DIOTE
MEDIKUEK EGIN, IRRIBARREA
LEHENDIK ZEKARREN NOGAYEK.
BETI DAGO IRRIBARREZ.

BETI EZ, BATZUETAN
NEGAR EGITEN DUT, NIRE
FAMILIAREKIN GOGORATZEN
NAIZELAKO. BAINA POZIK NAGO,
ASTE PARE BAT BARRU SENEGALERA
BUELTATUKO NAIZELAKO
ETA IA-IA SENDATUTA
NAGOELAKO!



Gizakien Lurra erakundearen helburua beharra duten haurrei zuzeneko arreta eskaintzea da, haurren ideia politikoak, arraza edota sinesmenak alde batera utzita.



Lankidetzeta proiektuak garatzen ditu 30 herrialdetan eta 100 laguntza programa baino gehiago abian jarri ditu osasun-eremuan, gizarte-ekintzan eta haurraren eskubideen aldeko ekimenetan.



Horietako bat da Berriazko Arreta Medikoa. Txikien gaixotasun batzuk sendatzeko ezinbestekoa da jomugako herrialdean ez dagoen puntako teknologia erabiltzea. Horregatik etortzen dira gurera, euren eritasunak sendatzera.

C/ Zabalburu, s/n, 01003 Vitoria
Tel. 616 90 17 33
www.tierradehombres.org